

ENPLEGUAREN LOTERIA: arriskua eta gizarte-segurantzaren subsidioak

Gaur egun enplegugabeko jendearekin egiten den politikaren azpian dagoen ustea da enplegugabeak beren enplegugabeziaren errua dutela beren buruen eta lan potentzialen artean hesiak ezarriz. Lan-bilaketaren teknika eragingortasunik gabeak, trebetasunik eza eta beroriek garatzeko ere gogorik eza, lana dagoen tokira lekuz aldatu nahi eza, bilatzen diren lan motekiko malgutasunik eza eta soldata-igurikapen handiegia eta abar aurkitzen dira hesi horien artean. Batez ere luzaroan enplegurik gabe egon direnen artean aurkitzen dira hesi horiek.

Enplegugabeziaren ikuspegi honek —langabeziaren arazona baino areago lan-hornikuntza arazona den honek— eragin sakona izan du azken urteotako politikan. Trebakuntza-programak eta lan—esperientzia atergabe azpimarratu dira. Azken aldian argitaratu diren idatzietan, **Training for employment** (enplegurako trebaketa), DE, 1988, izenekoan, adibidez, enplegurik ezaren izaera horren berri ageriki ematen da. Ikerketa horrek dio ekonomia hobetu eta enplegurik ezak behera egin badu ere, oraindik hiru arazo nagusi daudela oraindik konponketa beharrean enplegugabeko jende gehiago lanpostuetan ezartzeko. Lehena da enplegugabeek lanpostuetan behar den prestakuntzarik ez izatea; bigarrena, luzaroan lanik gabe egon direnek lan-merkatuarekiko kontaktoa galdua dutela eta hirugarren, eta lan-eske dabilzanen kopuru nabarmen bat ez direla lanerako "egokiak".

Trebetasun eta jarrerarekin zerikusia duen interes honekin batera lanerako in-

zentibo finantzarioena ere badago. Luzaroan eztabaidatu den arazona da hau. Enplegurik gabe dagoen jendeari subsidioak emateko orduan sor liteken gatazka izan da: enplegurik ez dutenei bizitzeko adina eman behar zaie baina ez lanerako gogoak kenduko dien adina. Funtsean bi era daude lanerako eraginkari finantzarioak hobetzeko: enplegugabeei subsidioak murriztea edota enpleguarengatiko diru-sarrerak gehitzea. Biak erabili izan dira politikan azken urteotan. Enplegugabeei egin zaizkien subsidio—murrizketak bitarikoak izan dira: zuzenekoak eta zeharkakoak. Britainia Handian egindako ikerketa batzuen arabera ikusi da murrizketa horien bidez enplegugabeei ematen zaien subsidioa 465 milioi libra esterlina merkeago gertatu dela.

Subsidioan buruturiko murrizketa lanera eragiten duen makila bihurtzen den bitartean, soldata urriak biribiltzeko bitartekoak egiaztatu ondoren ematen diren osagarriak bihurtzen dira azenario. Seme-alabak, etxea eta abararengatiko subsidioak daude horien artean. "Jobstart" edo "lanhasera" deritzon subsidioa bitartekoen egiaztapen oso sinple baten ondoren ordaintzen da: 12 hilabetez enplegurik gabe egon denak asteko 80 libra baino gutxiago ordaintzen dioten lan bat badu 20 librako osagarria ordaintzen zaio lehendabiziko 26 astetan.

Dena den, berrikitan Gizarte-Asegurantzak bere buruaz egin dituen azterketetan ezer gutxi esan izan da enplegugabeziari buruz; puntu bat bakarrik azpimarratu da: nahiz eta gizarte-asegurantzaren hel-

buruetako bat enplegurik gabe daudenei laguntzea den arren, bere buruaren kontra ari dela baldin eta hesiak eraikitzen baditu lanpostuak eraikitzeko, lan-mugikortasunerako edota jendea lanera itzultzearen kontra. Gisa horretako eragozpenak egon badaudela baldin eta jendeak uste izaten badu lanetik kanpora hobeki dagoela lanean baino.

Guztiarekin ere, ez dago batere garbi jende guztiak nola erantzungo dion politikagarapen honi. Eraginkari finantzario horiek enplegugabeak berak nola atzematen dituen askorik ez dakigulako da hori gehienbat. Gauza asko idatzi izan da enplegugabeziari eskaintzen zaion subsidioak nola eragina izan lezakeen enplegugabeziaren iraupenari dagokionez, baina ikerketa gehienak oso maila teoriko altuan eginak dira eta esparru mugatu samarretan eta idatzi horietan errazegi onartu izan dira enplegugabeen uste eta jarrerak aztertu beharrean. Ikerketa gutxiegi egin izan da enplegugabeak benetan zer pentsatzen eta egiten duen, hau da, lan eta soldatari dagokionez zer malgutasun izan dezakeen.

Ikerketa

Enplegugabeak berak eraginkari/deseraginkari finantzario horiek nola ikusten dituen aztertzeko York Unibertsitateko Ikerketa-Talde bati eskatu zion Osasun eta Gizarte-Asegurantzako Departamenduak lan bat burutzeko West Yorkshireko familien artean. Lanesku—hornikuntzaren bi alderdi hartu behar ziren kontuan: enplegugabeziatik lanerako iragaitza eta enplegugabezoaldian denbora mugatuko lana hartzeko aukerak eta trabak., batez ere enplegurik gabekoen emazteen aldetik. Ikerketa hau burutzen ari zirela, parez-pare Ipar Irlandako Stormonten gauza bera egiten hasi ziren, metodologia bera erabiliz. Horrela bi lan—merkatu ezberdinetan gertatzen zena alderatzeko aukera zegoen. Oraindik argitaratzeke dago ikerketa guzti honi buruzko txosten oso bat.

Esan beharra dago orain arte eraginkari finantzarioei buruz egin diren ikerketa gehienak kopuru handitan oinarrituriko metodo koantitatiboekin burutu direla. Zenbait helburutarako metodo horiek guztiz aproposak dira. Aldiz, beste ikerketa honetan gure interesak jarrera, pertzepzio, motibazio, ezaguera eta erabakiak hartzearen prozesuen aldetik doaz. Honetarako hobe da eremu mugatu bat sakon aztertzea. Guztira

55 familia ikertu ziren West Yorkshiren eta Ipar Irlandan. Guztiak bikote ezkonduak ziren eta gehienek haurrak zituzten eskumenean. Gizonezko guztiak urtebete eta hiru urte bitartean enplegugabezia egonak ziren laginak hautatu zirenean, nahiz eta ikerketa burutu zenerako bost gizon atzera lanera itzuli ziren (hiru lanegun osoz eta bi orduka). Oso emazte gutxi zeukaten enplegugabe gisa izena emana, eta zortzi familian bakarrik zeuden emazteak enplegatuak (denak orduka). Elkarrizketek ordu eta erdi baten irauten zuten eta senar-emazteei batera egiten zitzaizkien galderak. Elkarrizketak magnetofonoz grabatzen ziren eta erdi-egituraturiko gaizerrenda baten arabera burutzen zen.

Eraginkari finantzarioak

Hemen ikerketaren alderdi bat aztertzeko asia dugu: familiek nola erabakitzen zuten ikuspegi finantzario batetik egun osozko enplegu batera itzultzea. Aurrena familiek zeukaten egoera hartu behar dugu kontutan. Jasotako datuen arabera, bi seme-alaba dituen familia batentzat, zergak eta subsidio-sistema guztiak aplikatuz gero, berdintsu zen astero 65 edo 140 libratoko soldata kobratzea. 1988ko apirilaz geroztik eta gizarte-segurantza eraberritua- ren ondoren datuak aldatu egin dira eta agertu diren aldaketen ondorioz orain ezinezkoa da irabaziak asko haziz gero diru-sarrera garbia eta berean hazi gabe gelditzea. Baina hala ere, printzipioz "pobretasun tranpak" berean jarraitzen du eta orain irabazi nagusien gama zabalago bat hartzen du bere baitan.

Teorian familiako gizonen oso gama zabal batean kokatzeko moduko soldatak onar zitzaketen, baina galdetuz gero, gizon horiek beroriek esaten zuten gutxienez 90-110 librakoko soldata eraman nahi zutela etxera, eta ezkondua baldin bazen, berriz, 110-125 librakoa. Apaturikoak ziren beren "erreserba-soldatak", hau da, onartzeko prest zeuden soldatarik apalenak. Soldata-maila finkatzeko familiak bere eguneroko premietan funtsezkotzat jotzen zuena eskuratzeko beharrezkoa hartzen zuten kontuan (normalean laneko gastuak ere kontutan hartzen zituzten). Espero zituzten soldata horiek "errealistak" ziren ala ez erabakitzeko bide ezberdinak erabil daitezke. Gizonezko gehienak alde aurretik trebetasun gabeko edo erdi-trebetasuneko eskulanetan ibiliak ziren, beraz aurretik

izandako irabaziekin, eskulangile baten batezbesteko irabaziarekin eta toki haietan eskulan-postuetarako eskaintzen ziren soldatekin alderatuta ez ziren altuegiak. Hala ere, bai West Yorkshiren eta areago Ipar Irlandan, prentsan iragartzen ziren lanpostu gehienak eta enplegu-bulegoetakoak ez ziren "usadiozko" lan mota horietarako izaten (eraikuntza edo manufakturazioa). Aldiz, lanpostu gehienak zerbitzu-sailekoak izaten ziren eta batezkoz beste asteko 75 libra inguruko soldatak zituzten. Horregatik, nahiz eta gizonezkoek eskatzen zituzten gutxieneko soldatak oso altuak ez baziren ere berek usadioz egin zuten lanarekin alderatuta, han agertzen zen arazoa halako lanposturik ez izatea zen arazo nagusia. Kasu hau oso nabaria zen Ipar Irlandan baina bi tokietan nabari zen lan-merkatuak izan zuen bilakaera egun osoko manufakturazio-lanpostu iraunkorretatik ordukako eta urtarokako zerbitzu-lanpostuetara.

Oraindik oker handiagoa izango zatekeen gizonezko haiek ez irela errealistak beren soldatekiko ondorioztat ateratzea, prektikan egiten zutenaren eta esaten zutenaren artean alde handia omen zegoelako. Ia denak ibilita zeuden orduka aipaturiko zerbitzu-lanetan eta nahi zituztela aitortutako soldatak baino eskasagoak kobratuz gainera (beste ikerketa batzuetan ere ikusi ahal izan da enplegugabeek esaten eta egiten dutenaren arteko tarte hori). Praktikan, bazirudien gizonezko gehienak prest zeudela beren "erreserba-soldata" 15-20 bat libratan eraisteko. Hala eta guzti ere, gizonezkoak ez zeuden prest oso soldata apalak ordaintzen zituzten lanpostuetan aritzeko (50-60 astean).

Zergatik ez zuten familiek aurrera egiten gutxi ordainduriko lanpostuak onartzearen estrategiaren ildotik, gero bitartekoak egiaztatu ondorengo subsidioak jasotzeko? Horrela egin izan balute, seguraski gehitu egingo zuketuen beren lanpostu-aukera eta gauza izango ziratekeen bere lan/aisia konbinaketa areagotzeko ordu gutxiago lan eginez. Eta jakina diru-sarrerari laguntzeko politika soldata apalak-gehi-subsidioak nahiago izango direlako ustean oinarriturik dago barrenean. Badirudi, beraz, bazirela arrazoi batzuk uste izateko famili gizon horiek puntu bateraino bakarrik iristen zirela soldata-apalak-gehi-subsidioak estrategia onartzearen ildotik.

Aurrena, eta garrantzizkoa da puntu hau gogora ekartzea, soldata apaleko lan-

postuak ere ez dira beti derrigorrean eskura egoten. Ipar Irlandan, bereziki, lanpostuekiko konkurrentzia izugarria da; esate baterako, elkarrizketa egin zen hirian 4.020 gizonezko zeukan izena emana enplegu-bulegoan eta batezbeste 20 lanpostu zeuden eskura eta 50 bat iragartzen zituen bertako prentsak. West Yorkshireko egoera ez zen hain murrizta, hala ere gizonezkoen enplegugabeziako tasak % 12-16 inguruan zebiltzan. Gizonezko gehienak trebatu gabeak eta denbora luzean langabetuak ziren, hau da, aukera dagoenean enpleguemaileak oso begikotzat jotzen ez dituenak. Beraz, lan—hornikuntzaren lehen traba nagusia lanpostu eskuragarrien gabezia zen.

Bigarren, zentzuzko argibidea lirudike esateak familiek ez dakitela oso zehatz sistemak nola funtzionatzen duen eta ez zekitelako diru-sarrera oso antzekoak izan zitzaizketela irabazien gama zabal baten barruan kokatuta ere. Hori egia zen, baina puntu bateraino bakarrik. Familia bakar batek ere ez zekizkien xehetasun guztiak baina gehienek bazuten ideia orokor bat. Oro har, bazekiten bitartekoak egiztatuz gero osagarriak eskura zitzaizketela soldata apalak biribiltzeko, nahiz eta ezaguera-maila aldatzea izan. Batzuek oso ideia lausoak zituzten osagarri horiek kobratu ahal izateko bete behar ziren baldintzei buruz, baina beste batzuek horrelako osagarrietara jotzekoak ziren edota osagarri horien kobratzaileak ezagutzen zituztenak. Bistakoa denez beste edonoren kasuan bezala-ia inork ez zituen xeheki ulertzen zerga eta subsidio-sistemaren gorabehera eta itzulginguru guztiak. Guztiarekin ere, ezaguera-gabezia auzi horren parteetako bat besterik ez zen.

Batzuk-talde txiki bat, noski-soldata biribiltzeko osagarriak eskatu behar izatearen kontra agertzen zen. Hauen ustez, egun normalarengatik soldata normala ordaindu behar zen eta estatuak subsidioak ematearen kontra agertzen ziren. Soldata apalak-gehi-subsidioak ezin onartuzko zerbait zen, zeren lanean aritzeaz gainera estatuekiko dependentzia sortzen bait zuen. Zergatik lan egin ondorioz independentziaren ordean atergabeko dependentzia sortzen den? Bañiteke aldiro gobernuarekiko dependentzia eta estatuarekiko dependentzia nahasten zituztela batzuek.

Faktore guzti hauek bazuten garrantzirik, nahiz eta familia guztientzat ez izan maila berean. Guztiarekin ere, bazen faktore bat garrantzi nagusikoa familia guztientzat. Familia gehienak soldata apalak-gehi-

subsidioak sistemaren aurrean uzkur agertzearen arrazoa zen subsidio horiek eskatu eta egiaz zer gertatuko zen ez jakitearen aurrean sentitzen zuten urduritasuna zen. Tartean zeuden hautemandako arriskuak hesi bihurtzen zitzaizkien.

Arriskuak hartu beharra

Oro har, jendeak oso arriskutsutzat zeukan soldata apalak eta bitartekoak egiaztatu ondoko subsidioen estrategia. Horrek esan nahi du, gutxiako, 70 librazio soldata bat irabazi eta gero famili sarreraren osagarri gisa etxearengatik subsidioa, eskolan janaria doan eta beste zenbait premia asetzeko laguntzak izatea. Alde askotatik begirata gertatzen da arriskutsu jakabide hau. Aurrena, gerta liteke familiak subsidiarik ez jasotzea arrazoiren batengatik eta puntu honetan bazuen eraginik zortea frogatzeko prestutasunarik zegoenez aurretik antzeko subsidioak jasotakoa izateak edo subsidioa jasotako beste norbait ezagutzeak. Bigarren, subsidioa eskatzearen prozesuak ia ezinbestekoa du atzerapena berekin izatea, bai izendapena egiteko edo bai tramiteek luze jotzen zutelako. Atzerapenak sortzen baziren familiak soldata hutsarekin konpondu behar izaten dute epe horretan eta horrek muga bat jarzen dio zenbateraino jaitsi soldatekiko erlazioan.

Horrela familiak ez diote soilik ondorio finantzarioen alderdi bati bakarrik begiratu (espero duten irabazi-mailari), baita irabazien iturriari ere eta nola iturri ezberdinez fidatzeak izan litzakeen ondorio ezberdinei ere. Bitartekoak egiaztatu ondoko subsidioak direla-eta ez dute segurtasunik subsidioko benetan lortu dituztenik, zenbat lortuko duten eta zenbat itxaron beharko duten. Beraz arrisku horiek atzera eragiten die estrategia horren ildotik abiatzeko. Hala ere, ez da zuzena langabezian dauden familiak arriskuak hartzeko gaitasunik ez dutela ondorioztat ateratzea. Berauen arrazoiak ulertzeko testuingurua hurbilagoatik aztertu beharra dago-batez ere lanetik kanporako egoera finantzarioari. Familiak oso diru-sarrera urriekin bizi ziren eta langabezian baina gehienek aurkitua zuten egoera hartan irauteko modua. Horretarako aurrekontuari zehatz lotzea zen bidea. Aurrekontuaren ildotik saihestek esan nahi zuen, nahiz eta epe oso laburrean diru-sarrera eten, oso nekez gainditzeko moduko zortetan sartzea. Paradoxaz familiak diru apur

bat gehiago izan balute, askoz errazago ausartuko ziratekeen arriskuak hartzera. Gainera, familia horietako askok seme-alaba txikiak zituzten eta horregatik ere zailago gertatzen zitzairen arriskuak hartzea eta guraso bezala zituzten ardura eta erantzukizunak uztartzea. Beraz, garrantzizkoa da azpimarratzea enplegugabeko familiak ez direla besteak baino uzkurrago arriskuak hartzeko. Ezik, zera gertatzen da, diru-sarrerara murrizak dituztenez gero, edozein etenaldik askozaz garrantzi handiagoa hartzen duela horien kasuan.

Horrela, familien lan-estrategiak arrisku hautemanak ahalik eta gehien gutxitzera jotzen zuen. Horrek esan nahi du soldata-mailak kontsideratzekoan bi zituztela "hoberena" eta "bigarren-hoberena". Lehen "hoberenak" esan nahi zuen gizonezkoak eskuratzen zuten soldata aski ona zela bitartekoak egiaztatu ondoko subsidiarik eskatu beharrik ez izateko. Bigarren "hoberenak" esan nahi zuen gizonezkoak soldata apala bat eskuratu eta gero subsidioak eskatuko zituela. Hala ere, soldata hori ezin zitekeen oso apala izan, zeren eta gutxienez zenbait astetako etxe baten gastuak ordaintzeko modukoa izan behar bait zuen. Praktikan, eta zeukaten lan-merkatuko lanen izaerarengatik, gizonezkoak behartuak zeuden bigarren estrategia hoberena jarraitzea beren lan-aplikazioari zegoenez.

Lehen estrategia —familia osoa mantentzeko moduko soldata ematen duen lanpostuarena— "familia soldata" bezala ezaugarritzen dena da. Aipaturiko zirkuntantzetan erabat arrazoizkoa da estrategia hori familientzat, zeren eta arrisku hautemanengatik eta beroriek gutxitzeko premiarengatik estrategiarik "seguruena" da ahalik eta familli gasturik gehienak kide bakarraren irabazietatik asetzeko modua izatea bait da. Gizonezko eta emakumezkoen irabazien arteko aldea ia ezinbestekoa da eta ia beti gizonezkoa izaten da zama hori bere gain hartzen duena. Era berean zaila izaten da familientzat "bi soldata apal" konbinatzearen estrategia hartzea, zeren horrek gizonezko eta emakumezko ia aldi berean lanpostuak bilatzera behartuko bait litzuke. Horrela, argi dago gizarte-segurtzaren hornikuntzak eta irabazteko orduan dauden sexu-ezberdintasunek oraindik generoen rolen "aukera" berezi bat egitera bultzatzen duten baldintzak sortzen dituztela.

Badu garrantzia aitortzeak subsidio-hornikuntzek duten papera jarrera eta

erantzun horiek sortzean. Normalean onartu izan da subsidio-mailak determinatzen duela lehenik enplegugabeko gizonezkoak hartzeko prest dauden soldata-mailak. Izaitez, badirudi garrantzi handiagoa duela subsidioen egiturak daukan (lanean eta lanaz kanpo) mugak ezartzeko moduak, zeinetaraino enplegugabeko gizonezkoa joan daitekeen gutxi ordainduriko lanpostuak onartzerakoan.

Politika-inplikazioak

Azaldu dugun ikerketa txikia den arren, politika-inplikazio handikoa dela esan liteke. Hiru mailatan aztertzeak dira. Lehenik, ikerketak erakusten du nola jendeak duen arriskuaren pertzepzioak baldintzatzten dituen jarrerak eta erabakiak. Adibidez, familia askok ez zekiten subsidio-eskari bat egin zitekeenik bost astez soldaa kobratu gabe egon gabe eta horregatik zentzu batean arriskuaren pertzepzio faltsua zuten. Horregatik, politika-aukera batek jendeari informazio zehatzagoa ematearen bidetik jo beharko luke, gero jende horrek bere erabakiak har ditzan.

Hala ere, arazo nagusia beste nonbait dago soldata-apalak-gehi-subsidioak moduko estrategia bati heltzeko, eta hain zuzen ere, enplegugabeziatik lanerako iragaitza finantzarioki kudeatzen jakitean. Beraz, bigarren aukera bat iragaitza hori erraztean legoke, eta hori era ezberdinetara egin liteke.

Hirugarrenik, askozaz bide erradikala goa izango litzateke aukeraren parametroak aldatzea. Enplegugabeko gizon eta emakumeen lanesku-hornikuntza askatzeko

"familia horiek" "famili soldatarantz" bultzatzen dituzten presioetatik libratu beharko liriateke. Horek ekarriko luke askoz subsidio handiagoak ematea haurrengatik soldata-sistemaz kanpo eta gizabanakoak subsidioa jasotzeko erraztasun gehiago izatea eta subsidioa ez oinarritzea hainbeste familiaren bitarteko egiaztatuetan. Era berean esan izan da "oinarritzko diru-sarrerara baterako garanti" motaren bat bakarrik dela. Lan-merkatu malgu baten testuinguruan diru-sarrerari laguntzeko era bakarra. Izan ere, gaur eguneko gizarte-segurantzal egun osoko enplegua edo egun osoko enplegugabezia bakarrik onartzen ditu. Ordurako lana oso zabarturik dago baina lan-merkatuan gertatzen ari diren aldaketak kontutan izanik, seguraski errotiko aldaketak egin beharko liriateke sistema horretan ere.

Orokorkiago, politikaren ikuspegitik garrantzizkoa da onartzea gizabanako ezberdinek ezaguera, ulermen eta arriskuaren pertzepzio-maila ezberdinak dituztela, baina hala eta guzti ere ez dela anarkia indibidualik sortzen. Jendea "irrazional" izan daiteke, baina ez ezin ulertuzko era batean. Aitzitik jendeak bere pertzepzio eta sineseen arabera hartzen ditu erabakiak eta pertzepzio horiek sistematikoki erlaziona daitezke politikak ezarritako parametroekin. Horrela badago bide bat politika-aldaketak burutzeko, nahiz eta lanesku-hornikuntza gehitzera zuzendurtiko politikek lanesku horren eskaria baldin badago bakarrik izan arrakastatsu.

Policy and Politics Vol. 17 No. 1 (1989), 75-81 "The Employment Lottery: risk and social security benefits" (Jane Millar, Kenneth Cooke and Eithne McLaughlin) artikulua, Xabier Mendigurenek euskaratu eta moldatua.